

KOD.: A114

Psikologia

LEHEN ARIKETA. BIGARREN PROBA

*Denbora, gehienez: 120 minutu
Galderak: 120.*

EREDUA:

D

- Ez ireki esan arte.
- Markatu, erantzun orrian, egokitu zaizun eredu.
- Proba bukatzean, hartu orri hauek, erantzun-orriaren kopia horia eta jarraibideen orria.
- Gogoan izan:
 - Asmatuak: 1,00
 - Baliogabeak, bikoitzak edo zuriak: ez da punturik kenduko.
- Ereduaren marka jartzen ez baduzu, edo oker jartzen baduzu, proba baliogabetu egingo da.
- Ez da erantzun-orri berririk emango ariketaren azken 5 minutuetan.
- Bukatzen duzunean, altxa eskua, eta antolakuntzako baten batek jasoko dizu orri zuria.
- Ez da azterketarik jasoko, banaka, azken 3 minutuetan. Bukatu baduzu, geratu zure lekuan, isilik, denak batera bildu arte.

Eskerrik asko zure laguntzagatik

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. 7. artikulua. Printzipio hauek, besteak beste, arautuko dute Gizarte Zerbitzuetako Euskal Sistema: Erantzun OKERRA aukeratu:

- a) Unibertsaltasuna, berdintasuna eta ekitatea.
- b) Diskriminazio positiboa eta izaera indiziplinarra esku-hartzeetan.
- c) Erantzukizun publikoa eta kalitatea.
- d) Arreta pertsonalizatua eta integrala eta arretaren jarraitasuna.

2.- Euskal Autonomia Erkidegoko 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. 15. artikulua. Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren berezko prestazio teknikoa da, eta honako esku-hartzeak hartzen ditu barne: estimulazioa eta errehabilitazioa lantzeko esku-hartzea, heziketan esku-hartzea, arlo psikosozialean esku-hartzea eta

- a) Arlo sozialean esku-hartzea.
- b) Arlo psikosozioedukatiboan esku-hartzea.
- c) Arlo okupazionalan esku-hartzea.
- d) Esku-hartze komunitarioa.

3.- 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzkoa. I. eranskina. Udalaren eskumeneko zerbitzu eta prestazio ekonomikoak. Adieraz ezazu zerbitzu hauetako zein EZ den udalaren eskumenekoa:

- a) Gizarteratze-premiei erantzuteko gaueko harrera-zentroa.
- b) Etxez etxeko laguntza-zerbitzua eta gizarte- eta hezkuntza-arloan esku hartzeko zerbitzua.
- c) Gizarte-zerbitzuen eremuan partaidetza eta gizarte-inklusioa sustatzeko zerbitzua.
- d) Adinekoentzako eta gizarte-bazterkeria egoeran dauden pertsonentzako eguneko arreta zerbitzuak.

4.- 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzkoa. I. eranskina. Udalaren eskumeneko zerbitzu eta prestazio ekonomikoak. Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku-hartzeko zerbitzuak honako taldeak ditu hartzaile:

- a) Bazterkeria arriskuan daudenak.
- b) Mendekotasuna duten 65 urtetik beherakoak.
- c) Babesgabetasun-egoera larrian dauden adingabeak.
- d) Mendekotasuna duten pertsonak, adin mugarik gabe.

5.- 64/2004 Dekretua, apirilaren 6koa, zeinen bitartez onartu baitzen Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna, eta iradokizunen eta kexen araubidea. II. kapitulua. Gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eskubidetzat jotzen dira honakoak: Erantzun OKERRA aukeratu:

- a) Bere eskubideen ezagutza eta defentsa.
- b) Duintasuna eta autonomia.
- c) Pertsonenganako errespetua.
- d) Banakako arretarako plana.

6.- 64/2004 Dekretua, apirilaren 6koa, zeinen bitartez onartu baitzen Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna, eta iradokizunen eta kexen araubidea. III. kapitulua. Gizarte-zerbitzuetako profesionalak duintasunerako duten eskubidearen erabilera eraginkorrek zer dakar berekin?

- a) Errespeturik handiena, gizalegea eta gogo ona jasotzea zerbitzuen arduradunengandik eta gainerako profesionalengandik.
- b) Pertsona gisa duten berezko balioaren aitortpena.
- c) Sexu, sexu-joera, egoera zibil, adin, sinesmen edo ideologiengatik diskriminatuak ez izatea.
- d) Errespeturik handiena, gizalegea eta gogo ona jasotzea zerbitzuen arduradunengandik, gainerako profesionalengandik, erabiltzaileengandik eta haien laguntzaileengandik.

7.- Gasteizko Udalaren Gizarte Politiken Plan Estrategikoa (2016-2020). Adieraz ezazu udalaren gizarte-zerbitzuetan pertsonengan zentratutako arretaren ikuspegia izatera garamatzen printzipio gidaria.

- a) Osotasuna.
- b) Unibertsaltasuna.
- c) Parte-hartzea.
- d) Inbertsio-soziala.

8.- Gasteizko Udalaren Gizarte Politiken Plan Estrategikoa (2016-2020). Gasteizko Udalaren Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailak ezarritako erronkak: Erantzun OKERRA aukeratu:

- a) Normalizazioa gizarte-zerbitzuen erabileran.
- b) Gizarte-zerbitzuen arloan esperientzia berritzaileak garatzea.
- c) Gizarte-zerbitzuetako programak eta laguntza-bitartekoak zabaltzea.
- d) Gizarte-zerbitzuetako inbertsioa areagotzea.

9.- 385/2013 Dekretua, uztailaren 16koa, Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresna onartzen duena. Eranskina. Tresna hau aplikatzearen ondorioz, honako diagnostiko-kategoriak eratorriko dira:

- a) Gizarte-bazterkeria arina, gizarte-bazterkeria apala eta gizarte-bazterkeria larria.
- b) Gizarte-bazterkeria eza, bazterkeria-arriskua eta gizarte-bazterkeria
- c) Gizarteratzea, bazterkeria-arriskua, gizarte-bazterkeria arina, gizarte-bazterkeria apala eta gizarte-bazterkeria larria.
- d) Gizarteratzea, bazterkeria-arriskua eta gizarte-bazterkeria

10.- 385/2013 Dekretua, uztailaren 16koa, Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresna onartzen duena. Eranskina. Balioesteko adierazleak antolatzen funtsezko arloak: Erantzun OKERRA aukeratu:

- a) Ekonomia, lana eta egoitza.
- b) Gizartea.
- c) Osasuna.
- d) Prestakuntza/ okupazioa.

11.- 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoa. 68. artikulua. Arrazoi hauetakoren batengatik amaitu ahalko da arlo horretan eskumena duen administrazio publikoak adingabekoen beharrak estaltzen direla bermatzeko aldi baterako hartutako adingabekoen zaintza: Erantzun OKERRA aukeratu:

- a) Epai judizial irmoa.
- b) Adingabekoak berariaz eskatzea, legez emantzipatzeko adina badu.
- c) Zaintzaren ardura dutenek berariaz eskatzea.
- d) Gurasoek edo tutoreek idatziz eskatzea.

12.- 8/2015 Lege Organikoak —uztailaren 22koa, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duena— genero-indarkeriaren biktimatzat aitortzen ditu adingabekoak, eta nabarmendu egiten du epaileek indarkeria pairatzen duen emakumearen menpe dauden adingabekoei eragiten dieten neurri zibilei buruzko epaia emateko duten beharra. Horren ildotik, epaileak eten egin ahal dio genero-indarkeriaren ondorioz erruztatuari honakoen egikaritza:

- a) Haren menpe dauden adingabeen zaintza, jagoletza, harrera eta tutoretza.
- b) Guraso-ahala eta bisita-, egonaldi-, harreman- edo komunikazio-erregimena.
- c) Aurreko guztiak, guraso-ahala izan ezik.
- d) Aurreko guztiak.

13.- 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa. 5. artikulua. Egonaldiaren betekizunari dagokionez, eskubide-aitortzaren eskatzailea bost urtetik beherakoa bada, ...

- a) Ez da eskaera egin aurretiko egonaldiaren betekizunik eskatuko.
- b) Haurraren zaintza eta babesaren duenari eskatuko zaio betekizun hori.
- c) Eskaeraren aurretik gutxienez bi urteko egonaldia izatea eskatuko da.
- d) Ez da kasu zehatz horretarako zehaztasunik ezartzen.

14.- 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa. 5. artikulua. Aipatutako legean jasotako eskubideen titular izateko, oro har, ez da beharrezko betekizuna izango ...

- a) Mendetasunen bat izatea, legean zehazten den mailetakoren batean.
- b) Eskaera egin aurreko bost urteetan Espainiako lurraldean bizi izana.
- c) Espainiarra izatea.
- d) Aurreko guztiak nahitaez bete beharrekoak dira.

15.- 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurka Oso-osoko Babesa emateko Neurriei buruzkoa. 1. artikulua. Legearen xedea. Lege honen bidez babes-neurri osoak ezarri dira, eta neurri horien helburua da indarkeria-mota hori prebenitu, zehatu eta ezabatzea, eta, horretaz gain, ...

- Herritarrak sentsibilizatzeko neurriak indartzea.
- Eskubideak bermatzea laneko esparruan eta funtzionalean.
- Biktimei laguntza ematea.
- Indarrean dagoen zigor- eta prozesu-esparrua indartzea.

16.- 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurka Oso-osoko Babesa emateko Neurriei buruzkoa. 19. artikulua. Gizarte-laguntza osorako eskubidea. Diziplina anitzeko arretak bere baitan hartuko du bereziki... Erantzun OKERRA aukeratu:

- Biktimei informazioa ematea.
- Biktimei laguntza juridikoa ematea.
- Familia-unitateari hezkuntza-babesa ematea.
- Biktimei laguntza psikologikoa ematea.

17.- Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko erakundeen arteko II. akordioa. 6. Gizarte-zerbitzuen arloko jarduna. Akordio honetan aipatzen diren delituren baten biktima den emakume batek Euskal Autonomia Erkidegoko edozein Oinarrizko Gizarte Zerbitzutara jotzen duenean, honako urratsak emango dira, biktimak osasun laguntzarik behar ez badu... Erantzun OKERRA aukeratu:

- Premiazko arreta emango zaio biktimari.
- Emakumearen segurtasun fisikoa arriskuan badago, poliziari laguntza eskatuko zaio.
- Dauden baliabideen eta konponbideen berri emango zaio.
- Egin daitezkeen izapide judizialei buruzko informazioa emango zaio.

18.- Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko erakundeen arteko II. akordioa. 6. Gizarte-zerbitzuen arloko jarduna. Biktima ospitalera bidaltzen bada osasun-laguntza eskatzen duten lesiorik duelako, edo izan dezakeela uste delako, ...

- Gizarte-zerbitzuak aldeztatik telefonoz jakinarazi beharko du ospitalean, beharrezkoak diren bitartekoak prestatu ditzaten.
- Gizarte-zerbitzuak auzitegi-medikua ospitalean egotea eskatuko du, mediku azterketa egin dezan.
- Gizarte-zerbitzuak txosten sozial osoa igorriko du ospitalera, gertakariaren datu guztiak adierazita dituelarik.
- Esku-hartze guztiak egokiak dira.

19.- Gasteizko udalean genero indarkeriaren biktimei harrera egin eta laguntzeko prozesua. ONARTUZ prozesua (2014). 8. eranskina. Gizon erasotzaileekin esku-hartzea udalaren gizarte-zerbitzuetatik:

- Aldatzeko motibazioa lantzea.
- Defendatzeko eta errealitateari aurre egiteko mekanismoak lantzea.
- Gizon erasotzaileentzako tratamendu psikologikora bideratzea.
- Aurreko guztiak.

20.- Gasteizko udalean genero indarkeriaren biktimei harrera egin eta laguntzeko prozesua. ONARTUZ prozesua (2014). Genero-indarkeria egoera baten susmoa bada, eta biktimak hori berariaz aitortzen ez badu, biktima izatearen kontzientzia landu behar da pertsona horrekin, eta honi buruzko informazioa eskaini:

- Laguntzeko dauden baliabideei buruzkoa.
- Tratu txarren prozesuari eta indarkeriaren zikloari buruzkoa.
- Bizi duen arrisku-egoerari eta horrek bere segurtasunean eragin dezakeenari buruzkoa.
- Aurreko alderdi guztiei buruzkoa.

21.- Gasteizko Udalaren Genero-Berdintasunerako IV. Plana. 3. ildo. Ahalduntze feminista. Ahalduntze feministarako zein tresna proposatzen da?

- Zainketen ekonomia feminista.
- Hezkuntza, prebentzio-sistema gisa.
- Genero ikuspegia kontuan hartzen duen parte-hartze aktiboa.
- Aurreko guztiak.

22.- Gizarteratzeko Euskal Plana, 2017-2021. 4. kapitulua. Jarduteko printzipioak. 2017-2021 Gizarteratzeko Euskal Planean, zein da gizarteratzea laneratzearekin bakarrik parekatzen ez duen esku-hartze printzipioa?

- a) Gizarteratze aktiboa.
- b) Pertsonalizazioa eta autonomia.
- c) Aktibazio inklusiboa.
- d) Parte-hartze soziala.

23.- Gizarteratzeko Euskal Plana, 2017-2021. 5. kapitulua. Ardatzak eta jarduketa-eremuak. Gizarteratzeko euskal planak hainbat helburu estrategiko zehazten ditu, gaika banatutako esparruetan. Diru-sarreraren bermeen esparruan, talde zehatz bati zuzendutako prestazio ekonomikoen sistema hobetzea eta arrazionalizatzea proposatzen du, besteak beste. Zein da talde hori?

- a) Seme-alabak dituzten familiaena.
- b) Adinekoena.
- c) Genero indarkeriaren biktima diren emakumeena.
- d) Gizarte-bazterkeria arriskuan daudenena.

24.- Bizitegi-bazterkeria larriko egoerak gutxitzeko eta ez sortzeko euskal estrategia. 2018-2021. 4. ardatzean aurreikusitako neurriak: Genero-ikuspegia indartzea, egoitza-bazterkeriari aurre egiteko eta arazo hori lantzeko politiketan: Erantzun OKERRA aukeratu:

- a) Egoitza-bazterkeria larriko egoeran dauden edo egon diren emakumeen arteko elkarrekiko laguntza-taldeak gara daitezen sustatzea.
- b) Diskriminazio positiboa egoitza-bazterkeriaren arloko zentroetan.
- c) Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuetako profesionalak espezializatzea, baita oinarrizko gizarte-zerbitzuetako erreferentziakoak ere.
- d) Jardunbide egokien gidaliburuak egitea, genero-ikuspegia sartzeko egoitza-bazterkeria larriko egoeran dauden pertsonentzako zentro mistoetan.

25.- Egoitza-bazterkeria larriko egoerak gutxitzeko eta ez sortzeko euskal estrategia 2018-2021. Etxegabetasunari eta egoitza-bazterkeriari buruzko Europako tipologiak (ETHOS 2007ko berrikusketa) honako kategoria-kontzeptualak ezartzen ditu etxegabetasunari dagokionez:

- a) Etxebizitza ez segurua.
- b) Etxerik ez.
- c) Etxebizitza desegokia.
- d) Aurreko guztiak.

26.- Gasteizko Udaleko Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saila. 2017ko oroit-idazkia. Zein zerbitzuk/baliabidek funtzionatzen du oinarrizko eta berariazko gizarte-zerbitzuen udal sarearen osagarri eta subsidiario gisa, gizarte-langile profesionalekin eta dauden gizarte-baliabideak aplikatuta berehalako laguntza ematea xede?

- a) Gizarte Inklusioaren Zerbitzuak.
- b) Berehalakoan hartzeko zentroak.
- c) Udalaren Gizarte Larrialdietarako Zerbitzuak.
- d) Harrera Sozialerako Udal Zentroak.

27.- Gasteizko Udaleko Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saila. 2017ko oroit-idazkia. Erasotzaileekiko harremani dagokienez, zein fasetan egon behar dute indarkeriaren biktima diren emakumeak ONARPEN taldean hartuak izateko?

- a) Haustuaren hasierako fasean.
- b) Haustura-aurreko fasean.
- c) Lotura hausteko fasean.
- d) Aurrekoetako batean ere ez, edozein unetan jaso dezakete arreta ONARPEN taldean.

28.- Gasteizko Udaleko Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saila. 2017ko oroit-idazkia. Laguntza eta Garapen Egokiturako programa (LGE programa) familiak babesteko programa intentsiboa da eta hauek ditu hartzaile:

- Babesgabetasun-egoera moderatuan dauden 1 eta 16 urte bitarteko seme-alabak dituzten familiak.
- Babesgabetasun-egoera moderatuan dauden 3 eta 16 urte bitarteko seme-alabak dituzten familiak.
- Babesgabetasun-egoera moderatuan dauden 12 urtetik beherako seme-alabak dituzten familiak.
- Babesgabetasun-egoera arin edo moderatuan dauden 3 eta 12 urte bitarteko seme-alabak dituzten familiak.

29.- Gasteizko Udaleko Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saila. 2017ko oroit-idazkia. Adineko pertsonak zaintzen dituzten familiei laguntzeko programak zein baliabide eskaintzen ditu atsedean hartzeko zerbitzuen bitartez?

- Etxez etxeko laguntza zerbitzua (atseden modalitatea).
- Eguneko zentroa (hilean astebete).
- Programa psikosozialak.
- Aurreko guztiak.

30.- Babesgabetasun-egoeran edo babesgabetasun-egoeran izateko arriskuan dauden haur eta nerabeen kasuistikan esku hartzeko prozedura. Babesgabetasun-egoeraren ohiko azterketa amaitzeko gehieneko epea hauxe da:

- Aipatutako prozedura horretan ez da gehieneko eperik zehazten.
- 12 aste kasu guztietan.
- 6 hilabete.
- 8 aste arreta emandako kasuetarako, eta 12 aste, zerbitzuetan ezagunak ez diren kasuetarako.

31.- Babesgabetasun-egoeran edo babesgabetasun-egoeran izateko arriskuan dauden haur eta nerabeen kasuistikan esku hartzeko prozedura. Babesgabetasun moderatuen egoeretan, zein irizpide erabiltzen dira Haurtzaro eta Senitarte Zerbitzuak kasurako egindako planean gurasoen gaitasunari buruzko pronostiko-hipotesiak egiteko? Erantzun OKERRA aukeratu:

- Aldatzeko motibazioa.
- Haur edo nerabeari eragindako kaltearen larritasuna.
- Lotura afektiboa.
- Buruko osasunarekin lotutako arazoak izatea.

32.- Babesgabetasun-egoeran edo babesgabetasun-egoeran izateko arriskuan dauden haur eta nerabeen kasuistikan esku hartzeko prozedura. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak artatutako familia baten kasuko erreferenteak familia horretako adingaberen batean sexu-abusuaren adierazle zehaztugabeak aurkitzen baditu, nola jokatu behar du?

- Haurtzaro eta Senitarte Zerbitzura bideratuko du kasua, eta honek ikerketaren hasieratik hartuko du kasua bere gain.
- Premiazko ikerketa egingo du, balizko babesgabetasun-egoera horren larritasun-maila zehazteko.
- Kasu hori Aldundiko Adingabekoen eta Familien Arlora bideratuko du, eta horrek babesgabetasun larritzat hartuko du kasua.
- Aurrekoetako bat ere ez da zuzena.

33.- BALORA tresna. Instrumentalizazioa gurasoen arteko gatazketan, eta gurasoen eta haur eta nerabeentzat garrantzitsuak diren bizikidetza nukleoko beste familia-kide batzuen arteko gatazketan, honako babesgabetasun-tipologian sartzen da:

- Tratu txar psikikoa.
- Behar psikikoekiko zabarkeria.
- Tratu txar emozionala.
- Tratu txar fisikoa.

- 34.- BALORA tresna. Kalte kontzeptuari dagokionez, ... Erantzun OKERRA aukeratu:
- Kalte psikikoak arlo emozionala, soziala, kognitiboa eta sexuala hartzen ditu barne.
 - Haur edo nerabea delitu-ekintza larriak egitera induzitu badute, larritzat jotzen da haur edo nerabeak gurasoen edo tutorearen edo haren zaintzaz arduratzen direnen portaera horren ondorioz pairatutako kalte psikikoa.
 - Haur edo nerabe batek pairatu duen edo pairatu dezakeen kalte psikikoa ez dago gurasoen edo tutoretza edo zaintza dutenen portaeraren mende bakarrik, baita haurren edo nerabearen ezaugarri pertsonalen mende ere.
 - Kalte esanguratsua continuum bat da eta haren muturrean kalte larria dago.
- 35.- BALORA tresna. Zeren definizioa da jarraian adierazten dena? “Haur edo nerabeengan inguruabar hauetakoren bat edo hainbat egiaztatuta izatea: 1.- Nahasmendu psikopatologikoa. 2. Antsietate, depresio, uzkurtsun, jarrera agresibo edo garapeneko atzerapenak izatearen sintoma klinikoak.3. Garapen- eta egokitzapen-prozesua larriki eragozten duten eta berehalako tratamendu espezializatua behar duten jokabide arazoak edo ondoez emozionaleko sintomak”.
- Kalte psikikoa.
 - Kalte esanguratsua.
 - Kalte psikiko larria.
 - Kalte psikiko esanguratsua
- 36.- Atxikimendu-motak (Ainsworth eta Bell, 1970). Zein atxikimendu-motatan gertatzen da lotura-eredu utilitariora harreman-eredu aldakorrek sortzen duen frustraziotik eta zaurgarritasunetik babesteko?
- Atxikimendu ez segurua, desantolatua-indiskriminatua.
 - Atxikimendu ez segurua, antsietate handikoa-anbibalentea.
 - Atxikimendu ez segurua, iheskorra-ekiditzailea.
 - Atxikimendu ez segurua, desantolatua-anbibalentea.
- 37.- Atxikimendu- eta terapia- motak (Maryorie Dantagnan, 2005). Atxikimendu iheskorra-ekiditzailea duten haurrek terapan... Erantzun OKERRA aukeratu:
- Erreakzio emozional oso intentsuak izaten dituzte, horiek agertzen direnean.
 - Espazio terapeutikoan, harremana kontrolatzeko premia agertzen dute, modu inplizitu edo esplizituan.
 - Sasisegurutasun irudia ematen dute eta bestea asebetetzen saiatzen dira.
 - Terapiara joatea eragozten dieten zailtasunak izaten dituzte (aitzakiak), batez ere terapia-hasieran.
- 38.- Familia-sistema. Familia-bizitzaren alderdi hauetatik zeinek du eragin handiagoa adingabeen garapen kognitibo, pertsonal, emozional eta sozio-afektiboan?
- Familia-egiturak.
 - Familia-giroak.
 - Klase sozialak.
 - Familiak duen maila sozio-ekonomikoak.
- 39.- Familia-terapia sistemikoan erabiltzen den esku-hartze psikologikoko teknika batek ahalbidetu egiten du gorputzaren instrumentalizazioaren bitartez sistema baten lotura-egitura modu plastikoan eta sinbolikoan adieraztea. Zein da teknika hori?
- Psikodrama.
 - Eskulturak.
 - Dramatizazioa.
 - Focusing.
- 40.- Adingabekoen kontrako sexu-abusuari dagokionez, baieztapen hauetatik zein EZ da egia?
- Abusuzko sexu-jokabidea progresiboa da.
 - Adingabekoen kontrako sexu-abusu kasu gehienak familia barruan gertatzen dira.
 - Adingabekoek abusu-egileekiko duten atxikimendu emozionala izango da sexu-abusua pairatu duten haur- eta nerabe- biktimen trauma-osteko sintoma gehienen matrizea.
 - Haurrenganako sexu-abusua haurren kontrako beste tratatu txar mota batetik bereizten duten faktoreetako bi tolerantzia kulturala eta ezkutatzea dira.

41.- Sexu-abusua pairatzen duten adingabeengan, eragin traumatikoa aldatu egin daiteke faktore hauen arabera:

Erantzun OKERRA aukeratu:

- a) Haur edo nerabearen adina.
- b) Guraso “babeslearen” jarrera.
- c) Adingabeak egoerara egokitzeko duen gaitasuna.
- d) Abusuaren iraupen-denbora.

42.- Zer da Gasteizko Udaleko Haurtzaro eta Senitarte Zerbitzuak haurren kontrako abusetan aholkularitza psikologikoa emateko garatu duen ASASI programa?

- a) Aipatutako zerbitzuaren Balorazio Atalaren menpeko programa, zuzeneko esku-hartze psikosozialerako.
- b) Aipatutako zerbitzuaren Balorazio Atalaren menpeko programa, esku-hartzeen baloraziorako.
- c) Aipatutako zerbitzuaren Familiak Babesteko Atalaren menpeko programa, familiekiko esku-hartzeetan laguntzeko.
- d) Ez da udal programa, aldundiarena baizik.

43.- Gurasoen aurkako indarkeria definitzeko giltzarriak (Aroca, 2010): kaltearen nahitasuna, nahi dena lortzeko xedea eta ...

- a) Kalte fisiko eta emozionala.
- b) Indarkeriazko jokabideak errepikatzea.
- c) Gurasoek sekretuan gordetzea (beldurra edo lotsa).
- d) Aurreko guztiak.

44.- Gurasoen aurkako indarkeria erabiltzen duten seme alaben ezaugarriak. Erantzun OKERRA aukeratu:

- a) Maiz izaten diren aldagai psikologikoak: frustrazioarekiko tolerantzia txikia, oldarkotasuna, enpatiarik eza, gizartetik bakartzea...
- b) Hezkuntza-estilo arduragabeak edo bat ez datozenak.
- c) Zailtasun-tasa handiagoa, aitortzan, ikaskuntzan eta eskola-egokitzapenean.
- d) Substantzien kontsumoa.

45.- Gurasotasun positiboaren curriculum optimoa. Aldagai hauetatik zeintzuk EZ dira garapen sozio-emozionalaren sustatzaileak?

- a) Frustrazio optimoa eta hezkuntza-estilo demokratikoa.
- b) Jaiourreko lotura eta atxikimendu segurua.
- c) Familia-egitura eta haurren sozializazioa.
- d) Garapen moralala eta erregulazio emozionala.

46.- Gurasotasunaren zein dimentsioi hartzen du barne hazkuntza lanetan ari den familia batek duen laguntza soziala?

- a) Gurasotasuna indartzeko ekologiak.
- b) Garapenaren sustapenak.
- c) Tratu onak.
- d) Garapenaren estimulazioak.

47.- Gasteizko Udaleko Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saileko Komunitate Jardueraren Zerbitzuaren 2018-2019ko programazio komunitariorako jarraibideen baitan, lehenetsunetako bat da gurasotasun positiboa bere hiru dimentsioetatik landu beharra. “Tratu ona” dimentsioaren barruan, jorratu beharreko gai hauek ezartzen dira:

- a) Haurren garapenaren egutegiari buruzko informazio gehiago, eta ingurumen-terapiak zabaltzea.
- b) Amaren eta fetuaren arteko lotura lantzea eta frustrazio optimoaren praktika sustatzea.
- c) Hezkidetzak eta gatazka-prozesuak prebenitzeko programak sustatzea.
- d) Aurreko guztiak.

48.- Gasteizko Udalaren gurasotasun positiboaren programa (2018-2022). Gurasotasun positiboa definitzen duten parametroak. Nondik dator gurasotasun jardunbide egokien egokitasunaren justifikazio zientifikoa?

- a) Neurozientziaren ebidentzietatik.
- b) Garapen-psikologiatik.
- c) Gurasotasun positiboaren prebentzio-jardunak eragiten duen itzulera-ekonomikoaren analisitik.
- d) Aurreko guztiak.

- 49.- Ebaluazio psikologikorako zein tresna erabiliko dugu babesgabetasun-egoeran egon daitekeen adingabearen garapen sozio-emozionala baloratzeko, adingabeko horrek 16 urte baditu eta informazioa hainbat iturritatik (ikastetxe, familia, adingabea..) jaso nahi badugu?
- TAMAI.
 - AECS.
 - SENA.
 - Aurreko guztiak.
- 50.- Haur eta nerabeen jokabidea ebaluatzeko BASC P-1 sistemak... Erantzun OKERRA aukeratu:
- Haur hezkuntzatik DBHra bitarteko adingabeak ebaluatzen ditu.
 - Arrisku-maila baxua, ertaina, ertain-altua eta altua duten adingabeak ebaluatzen ditu.
 - Jokabidearen eta nortasunaren alderdi ugari ebaluatzen ditu, baita dimentsio egokitzaileak eta klinikoak ere.
 - Formatu multidimentsionala eta balorazioko hiru osagai ditu: auto-txostena, gurasoentzako galdetegia eta tutoreentzako galdetegia.
- 51.- Zein elkarrizketa-psikologiko motak lagundu nahi du pertsona baten jokabide edo ohitura ez-osasungarrien inguruko anbigualtasunak aztertzen eta konpontzen, hartara bizimodu-estilo osasungarriagoak sustatzeko?
- Ikerkuntza-elkarrizketak.
 - Diagnostiko-elkarrizketak.
 - Elkarrizketa motibazionalak.
 - Konfrontazio-elkarrizketak.
- 52.- Elkarrizketa psikologikoaren teknika bat da: Erantzun OKERRA aukeratu:
- Setting.
 - Autoerrebelazioa.
 - Isiltasuna.
 - Informazioa.
- 53.- Ebaluazio psikologikoko zein tresna erabiliko dugu adineko pertsona baten aurkako tratu txarren susmoa baieztatzeko?
- EDMA
 - ZARIT eskala
 - FUMAT eskala
 - DOWNTON eskala
- 54.- Psikologiako ebaluazio-tresna hauetatik zein EZ litzateke erabiliko buruko osasunaren arazoaren eragin-maila ebaluatzeko?
- Diagnostiko-elkarrizketa.
 - DSM-Vren ebaluazio-irizpideak.
 - Goldbergen osasun galdetegia.
 - SPMSQ (Short Portable Mental State Questionnaire de Pfeiffer).
- 55.- Haurren balizko babesgabetasun-egoera batean, gurasotasun-gaitasuna ebaluatzeko aplikatzeko proba-diagnostikoa:
- TAMAI.
 - BATELLE.
 - HOME.
 - CUIDA.
- 56.- Esku-hartze komunitarioko tresna hauetatik zein erabiltzen da programen plangintza egiteko eta horiek ebaluatzeko?
- Focus Group
 - Sistemen arteko taldea.
 - Jarduera komunitarioak.
 - World kafea

- 57.- Zein metodologia-komunitariok erabiltzen du talk-stick delakoa guztien parte-hartzea bermatzeko?
- Focus Groupek
 - Eztabaida taldeak
 - Buzz Sessioek.
 - World kafeak.
- 58.- Arazoak konpontzeko oinarriko prozeduraren etapak (D`Zurilla eta Goldfried): Erantzun OKERRA aukeratu:
- Konponbide alternatiboak sortzeko fasean, ahalik eta konponbide gehien sortu behar da, nahiz eta zentzugabeak izan.
 - Erabakiak hartzeko fasean, konponbiderik onena aukeratuko da, konponbide horrek dakartzan ondorio pertsonal, sozial eta ekonomikoak kontuan hartuta.
 - Proposatutako konponbideak ez duela arazoa konpontzen ikusten bada egiaztatze fasean, arazoaren hasierara itzuli behar da.
 - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
- 59.- Becken terapia kognitiboaren arabera, kognizio disfuntzionalak aldatuz gero, arindu egin daiteke ondoez emozionala. Zein kognizio-disfuntzional mota identifikatzen ditu aldaketa-objektu gisa? Erantzun OKERRA aukeratu:
- Pentsamendu automatikoak (gaizki formulatuak, gogoeta gabeak eta pertsonentzat zentzuzkoak ez direnak).
 - Eskema kognitiboak (sinesmen desegokituak, eta horien gainean eraikitzen dira esperientziak).
 - Pentsamendu desitxuratuak (errealitatea interpretatzeko joera indibidualdunak).
 - Sinesmen irrazionalak, hainbat alderdiri lotuak: onartze-beharra, errua, frustrazioa, porrotaren beldurra...
- 60.- Trebetasun sozialak entrenatzeko erabiltzen diren teknikak: Erantzun OKERRA aukeratu:
- Jokabide-saiakuntza ezkutukoa.
 - Atzera elikatzea.
 - Hurbiltze sistematikoa.
 - Ereduduna.
- 61.- Hirugarren belaunaldiko terapia-mota nagusiak: Erantzun OKERRA aukeratu:
- Onarpen-eta konpromiso- terapia.
 - Onarpen integraleko psikoterapia.
 - Mindfulnessen oinarritutako terapia kognitiboa.
 - Bikotearentzako jokabide-terapia integratua.
- 62.- Zer da defunsio kognitiboa?
- Gure pentsamenduetatik nolabaiteko distantzia hartzeko eta benetan direna bezala (pentsamenduak) ulertzeko gaitasuna da.
 - Sufrimendua saihestea da. Sufrimendua gure bizitzaren parte bezala ez onartzea.
 - Gure sentimenduak eta pentsamenduak, hemen eta orain, kontzienteki esperimintatzeko gaitasuna da.
 - Aurrekoetako bat ere ez da zuzena.
- 63.- Mindfulnessak, testuinguru-terapia bezala ulertuta,... Erantzun OKERRA aukeratu:
- Desatsegina desagerrarazteko saiakerek eragindako sufrimendua saihesten du.
 - Gertatzen ari dena gertatzen ari den momentuan aztertzeko aukera ematen du (momentu presentean jartzen du arreta).
 - Ez du gure bizipenen zuzeneko kontrola nahi, bizipen horiek gertatzen diren bezala esperimintatzea baizik.
 - Pentsamendu negatiboak ezabatzen ahalegintzen da, eta hartara, antsietatea gutxitu.
- 64.- Berehalako esku-hartze psikologikoaren printzipioak hondamendi edo krisi egoeretan (Losada P., 2004). Erantzun OKERRA aukeratu:
- Berehalakotasuna.
 - Hurbiltasun fisikoa.
 - Sinpletasuna.
 - Hurbiltasun emozionala.

65.- Psikologoak teknika hauetatik zein ez du aplikagarri, oro har, hondamendi-egoeretan?

- a) Estresari aurre egiteko teknika terapeutikoak.
- b) *Counseling* komunitarioko estrategiak.
- c) *Defusing* teknikak.
- d) Aurreko teknika guztiak dira aplikagarriak.

66.- Esku-hartze psikologikoa substantzien abusuari. Elkarrizketa motibazionalaren oinarriko printzipioak (Miller eta Rollnick, 1999). Erantzun OKERRA aukeratu:

- a) Eztabaidak saihestea.
- b) Autoeraginkortasunari laguntzea.
- c) Enpatia eta baldintzarik gabeko onarpena adieraztea.
- d) Erresistentziak lantzea.

67.- Esku-hartze psikologikoa substantzien abusuari. Aldatzeko motibazioaren etapak: Pertsonak zein fasetan aitortzen dute arazoa dutela eta konponbideetan pentsatzen hasten dira?

- a) Kontenplazioa.
- b) Mantentzea.
- c) Ekintza.
- d) Prestakuntza.

68.- Zer da talde psikoedukatioa?

- a) Esku hartzeko teknika bat, taldekoa eta komunitarioa.
- b) Taldeka esku-hartzeko teknika (zuzenekoa edo zeharkakoa izan daiteke).
- c) Zeharkako esku-hartze teknika bat
- d) Taldeka esku-hartzeko tresna, gaitasun pertsonaletan zentratua.

69.- Ikasketa Egituratu Unitateak taldeka esku hartzeko teknika bat da eta honako faseak ditu: modelatzea, paperak antzeztea, atzera elikatzea eta

- a) Itxiera.
- b) Esperimentazio zuzena.
- c) Trebatze-transferentzia.
- d) Kontrastea.

70. Zer da Philips 6/6 teknika?

- a) Parte hartzea sustatzen duen talde-teknika bat.
- b) Talde-teknika zatitzailea.
- c) Aurkezpenerako talde-teknika bat.
- d) Plangintzarako talde-teknika bat.

71.- Esku-hartze soziala eta komunitarioa, immigrazioaren esparruan. Etorquinekin egiten diren esku-hartzeetarako hurbilpenetan, interesa gizarte-desabantaila egoeran dauden pertsonak berek arazoak azaldu eta konponbidea proposatzean jartzen bada, zein eredu hartzen dela esaten da?

- a) Top Down.
- b) Ekologikoa.
- c) Bottom up.
- d) Gaitasun sozialekoa.

72.- Esku-hartze soziala eta komunitarioa, immigrazioaren esparruan. Achótegiren arabera (2000), etorkinaren estres kronikoaren sindromea gertatzen da ...

- a) Kontrako egoerek denbora luzez irauten dutenean.
- b) Indibidualismoa denean harrera egiten duen gizartearen ezaugarria.
- c) Bere testuinguru kulturaletik aldenitu diren pertsona guztiengan.
- d) Etorkinak egiakotzat jotzen duenean harrera egin dion gizarteak berari buruz duen estereotipo negatiboa.

73.- Esku-hartze soziala eta komunitarioa, immigrazioaren esparruan. Kultura-fusioaren ereduak izan dituen kritiken artean hau aipa daiteke:

- Gezurra da gizarte-hartzaileak homogeneoak direla.
- Kultura-aniztasuna arazotzat jotzen da homogeneotasuna lortu arte.
- Fusio hitzaren zehaztugabetasuna, erreferentzia handiagoa egiteagatik arraza alderdiei kulturakoei baino.
- Asimilazionismo kontzeptu bati erantzutea.

74.- Euskal Autonomia Erkidegoko adineko pertsonenganako tratu txar fisiko eta ekonomikoak prebenitu eta hautemateko prozedura (2015eko maiatza). Adinekoen kontrako tratu txarrak eragiten dituzten jokabideak: Erantzun OKERRA aukeratu:

- Sendagarrien gaintratamendua (arretan tematzea)
- Adierazi gabeko lotzeak (axolagabekeria pasiboa)
- Osasun zentro batean abandonatzea (abandonatzea)
- Bere ondasunak lapurtzea (kaltea eragiten duen berariazko ekintza)

75.- Euskal Autonomia Erkidegoko adineko pertsonenganako tratu txar fisiko eta ekonomikoak prebenitu eta hautemateko prozedura (2015eko maiatza). Tratu txar fisiko eta ekonomikoaren adierazleak hautemateko galdetegi aplikatu ondoren, zein litzateke esku-hartzeko proposamena egoera hauetan? Erantzun OKERRA aukeratu:

- Arrisku-egoera larria: Balorazio geriatriko sozio-sanitario osoa egitea hiru hilabete igaro baino lehen, eta arrisku-faktoreak gutxitzen dituzten esku-hartze sozio-sanitarioak abian jartzea.
- Arrisku-egoera oso larria, kalte ekonomikoa gertatzeko arriskuarekin: bere interesen aurkako kaltea galaraziko duen esku-hartze sozio-sanitarioko plana, fiskaltzan salatzea, eta, instituzio batean bizi bada, txostena ikuskaritzaz-zerbitzura bidaltzea .
- Berehala esku hartzeko egoera (kalte fisikoarekin): pertsona babestea bermatuko duen esku-hartze sozio-sanitarioko plan bat berehala abian jartzea, lesioen parte egitea eta epaitegira helaraztea, eta txostena ministerio fiskalari helaraztea, pertsona izatez ezgauza bada.
- Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

76.- Euskal Autonomia Erkidegoko adineko pertsonenganako tratu txar fisiko eta ekonomikoak prebenitu eta hautemateko prozedurak (2015eko maiatza) hauxe planteatzen du:

- Bi fase desberdin: Fase prebentiboa, arrisku-adierazleak hautemateko barne, eta ekintza zuzeneko fasea.
- Hasieran behaketa-fasea eta gero esku-hartzekoa.
- Bi garapen-fase: lehen fasea, behaketa prebentiboa: bigarrena, jarduera-fasea, lehen fasean hautemandako arriskuaren larritasunera egokitua.
- Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

77.- Zahartze Aktiborako 2015-2020ko Euskal Estrategian, zein printzipiok defendatzen du adinekoei eragiten dieten edozein erabaki-prozesutan adineko horien iritzia kontuan izateko beharra?

- Duintasunak.
- Autonomiak.
- Parte-hartzeak.
- Erantzunkidetasunak.

78.- Zahartze Aktiborako Euskal Estrategia, 2015-2020. Zahartze aktiboari buruzko baieztapen hauetatik, zein EZ da guztiz egia?

- Zahartze aktiboa = zahartze osasuntsua.
- Zahartze aktiboak adinekoen giza eskubideen aitortzea du oinarri.
- Zahartze aktiboa pertsonak inguratzen dituzten askotariko eragile determinatzaileen mendekoa da.
- Baieztapen bat ere ez da zuzena.

79.- Fernández Ballesteros, R (2004). Zahartzaroaren psikologia. Zahartzaroan, hauetako zein funtzio kognitibo areagotzen direla dirudi?

- Adimen kristalizatuari lotuak.
- Adimen jarioari lotuak.
- Adimen emozionalari lotuak.
- Zahartzaroan ez da funtzio kognitibo bat ere areagotzen.

80.- Carstensenen teoria baten arabera (1991), adinarekin kohesionatu egiten dira afektibotasuna eta kognizioa, eta, ondorioz, zahartzaroan hobeto erregulatzen da emozioa, eta horrek berekin dakar alderdi positiboak areagotzea eta alderdi negatiboak minimizatzea, eta ongizate edo asebetetze handiagoa lortzea. Zein da teoria horren izena?

- a) Zahartzaroko erregulazio emozionalaren teoria.
- b) Selektibotasun sozio-emozionalaren teoria.
- c) Zahartzaroko ongizate afektiboaren teoria.
- d) Ez dago halako teoriarik.

81.- Zeintzuk dira zahartze aktiboaren lau zutabeak? 1.- Osasun ona eta doikuntza fisikoa; 2. Funtzionamendu intelektuala; 3. Afektua eta konpromisoa (familian eta gizartean) eta

- a) Afektua eta kontrola (bizitza-kontrola eta emozio-erregulazioa)
- b) Partaidetza komunitarioa.
- c) Ongizate emozionala.
- d) Osasun ona eta doikuntza psikikoa.

82.- Zein da zahartzea neurtzeko zientifikoki garatutako modua?

- a) Adin fisikoa / biologikoa.
- b) Adin psikikoa / intelektuala.
- c) Adin funtzionala.
- d) Adin soziala.

83.- Psikologiako profesionalak zein arlotan esku-hartzen du zahartze aktiboa errazteko? Funtzionamendu kognitiboa hobetzea, funtzionamendu afektiboa eta aurre egitekoa mantentzea, funtzionamendu fisikoa eta bizitza estiloa, eta

- a) Funtzionamendu emozional positiboa garatzea.
- b) Autonomia handitzea.
- c) Interes sozialarekiko eta parte hartzeoarekiko interesa.
- d) Aurreko guztiak.

84.- Zainketa informala definitzen duten bereizgarriak: Erantzun OKERRA aukeratu:

- a) Modu prekarioan ordaindutako jarduera izatea.
- b) Batez ere emakumeak aritzen diren jarduera izatea.
- c) Etxeetan garatu ohi izatea.
- d) Gehien bat eremu pribatuetan garatzea.

85.- Geriatria eta Gerontologiako Espainiako Elkarteak. Adinekoei tratu ona emateko bermatu beharrekoak diren printzipio bioetikoak: Erantzun OKERRA aukeratu:

- a) Kalterik ez egitea.
- b) Autonomia.
- c) Justizia.
- d) Indibidualtasuna.

86.- Adinekoen arreta sozio-sanitariorako kode etikoa. Zein printzipio etikori erantzuten diote jokabide hauek: Pribatutasuna eta konfidentzialtasuna errespetatzeak, beren bizitza kudeatzeko duten gaitasuna baloratzeak (laguntza behar duten adinekoak), eta proposatzen diren esku-hartzeetarako adostasunak?

- a) Ongintzari.
- b) Indibidualtasunari.
- c) Autonomiari.
- d) Kalterik ez egiteari.

87.- Martxoaren 1eko 14/2011 Foru Dekretua, Arabako Lurralde Historikoan Gizartegintzan etika-batzordeak sortzeko eta kreditatzeko modua arautzen duena. Gizartegintzako etika-batzordeei gagozkielarik, ... Erantzun OKERRA aukeratu:

- a) Zalantza-egoeretan erabakiak hartzeko aholkularitza etikoa ematea dute xede.
- b) Gizarte-zerbitzuen sareko erabiltzaileek eta profesionalek lehentasunez erabiltzeko baliabideak dira.
- c) Eztabaida-organoak dira eta kontsulta- eta prestakuntza-zeregina dute beren beregi.
- d) Aurreko guztiak zuzenak dira.

88.- “Koordinazio sozio-sanitarioa. Euskadiko Arreta Sozio-sanitarioaren Lehentasun Estrategikoak, 2017-2020” agirian proposatzen diren ereduetatik, zeinek planteatzen du etxeko esparrua arreta sozio-sanitarioaren berezko ekosistemaren paradigma gisa?

- a) Diziplina anitzeko esku-hartzearen ereduak.
- b) Eredu ekologikoak.
- c) Eredu orekatuak.
- d) Horietako batek ere ez.

89.- Honako talde hauek dira Euskadiko arreta sozio-sanitarioaren arretaren xede: premia bereziak dituzten haurrak, bazterkeria- eta babesgabetasun-arriskuan dauden pertsonak, desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonak eta ...

- a) Gaixotasun terminalak dituzten pertsonak.
- b) Etxerik gabeak.
- c) Buruko nahasmendu larria dutenak.
- d) Aurreko guztiak.

90.- Gasteizko Udaleko gizarte-zerbitzuetako psikologoek esku-hartze markoa (2017). Hauexek dira esku-hartzearen oinarritzko printzipioak: Erantzun OKERRA aukeratu:

- a) Ikuspuntu komunitarioa eta diziplinarteko tratamendua.
- b) Sarean lan egitea eta pertsonen partaidetza eta protagonismoa.
- c) Esku-hartze proaktiboa eta prebentziozkoa.
- d) Planteatutako eskari eta behar sozialei erantzuten dien esku-hartzea, eta gutxieneko esku-hartze nahikoa.

91.- Gasteizko Udaleko gizarte-zerbitzuetako psikologoek esku-hartze markoa (2017). Psikologoek lantalde profesionalen esparruan dituzten laguntza eta aholkularitza teknikoko funtzioak: Aholkularitza, arreta prozesuan (indibiduala, familiara, taldekoa eta komunitarioa) eta ...

- a) Talde-lanari laguntzea.
- b) Profesionalak eta lan-prozesuak gainbegiratzea.
- c) Bere jarduerari dagozkion oroitidazkiak prestatzea.
- d) Horiek guztiak dira laguntza eta aholkularitza teknikoko funtzioak.

92.- Gasteizko Udaleko gizarte-zerbitzuetako psikologoek esku-hartze markoa (2017). Jokabidearen analisi funtzionala egiten laguntzen duten eta esku-hartzeen planteamenduan eragina izango duten funtsezko erreferentzia teorikoak: Erantzun OKERRA aukeratu:

- a) Sistemaren teoria orokorra (Bronfenbrenner)
- b) Psikologia soziala (Bandura).
- c) Psikologia humanista (Rogers).
- d) Psikologia positiboa (Seligman).

93.- Enpowerment (ahalduntzea) pertsonak, antolakundeak eta komunitateak beren bizitzaren kontrola eta domeinua eskuratzeko prozesu gisa ulertuta (Rappaport), zeintzuk dira bere oinarritzko osagaiak?

- a) Parte-hartze soziala eta arazoaren konponketa.
- b) Hausnarketa kritikoa eta parte-hartze komunitarioa.
- c) Parte-hartze demokratikoa eta autodeterminazio indibiduala.
- d) Aurrekoetako bat ere ez.

94.- Gaitasun-ereduaren ezaugarriak: Erantzun OKERRA aukeratu:

- a) Ikaskuntzaren mekanismoen esku-hartzea nabarmentzen du, arazoak eta jokabide-desorekak eskuratzean.
- b) Gaitasunak ikasteak jokabide-desoreka prebenitzea ahalbidetzen du.
- c) Esku hartzeko teknika zehatzak ditu (jokabidea aldatzeko trebetasun eta teknikak).
- d) Garrantzia handia ematen dio giza-inguruneari osasunaren mantentzean eta jokabide-arazoaren sorreran, eta minimizatu egiten du ingurune fisikoaren garrantzia.

95.- Maslowen giza-motibazioaren teoriaren arabera, behar hauetako zein egongo litzateke bere piramidearen goiko muturrean?

- a) Status-, lorpen- eta posizio-beharra (lorpenak eta errespetua izateko gogoia).
- b) Autoerrealizazio-beharra (izan nahi dudana izatea)
- c) Maitasun-beharra (maitatzeko eta maitatua izateko desioa).
- d) Kide izateko beharra (familia edukitzeko desioa, talde bateko kide izateko desioa...).

96.- Rogersen arabera, terapia psikologiko baten arrakasta honako baldintzak betetzearen menpe dago: Erantzun OKERRA aukeratu:

- a) Kongruentzia izan behar da Ni organismikoaren eta Autokontzeptuaren artean.
- b) Terapeutak autentikoa eta kongruentea izan behar du, eta bere bizitzako autoerrebelazioak egin.
- c) Harreman pertsonal esanguratsua izan behar da terapeutaren eta bezeroaren artean.
- d) Terapeutak modu positiboan eta baldintzarik gabe onartu behar du bezeroa.

97.- Pertsonengan zentratutako arreta integralaren ereduaren arabera, norberaren ekintzak eta norberaren bizitza gobernatzeko, eta norberaren borondatea gauzatzeko gai den pertsona

- a) Independentea da.
- b) Menpekotasuna duen pertsona da.
- c) Autonomoa da.
- d) Heteronomoa da.

98.- Pertsonengan zentratutako arreta integralaren jatorria Carl Rogersi egotzen zaio (bezeroan zentratutako terapia formulatu zuen). Terapia honek “paziente” deitzearen ordez, “bezero” deitzearen aldeko apustua egiten du, eta bezeroari posizio hau ematen dio:

- a) Bere prozesu terapeutikoaren arduradun.
- b) Bere prozesu terapeutikoan atsekabetua.
- c) Bere prozesu terapeutikoaren protagonista.
- d) Aurreko guztiak.

99.- Pertsonengan zentratutako arreta integralaren eredu. Arreta mota hau ematen duten profesionalen rol-aldaketa: zuzendari-roletik beste honetara pasatzea:

- a) Enpatikoa.
- b) Sustatzailea.
- c) Konfiantzazko irudiarena.
- d) Kolaboratiboa.

100.- Rogersen hirukoa:

- a) Kontsiderazio positiboa, baldintzarik gabeko onarpena eta enpatia.
- b) Autentikotasuna, baldintzarik gabeko onarpena eta enpatia.
- c) Kontsiderazio positiboa, konfiantza eta autentikotasuna.
- d) Pertsonaren autonomiarekiko errespetua, baldintzarik gabeko onarpena eta konfiantza.

101.- Pertsonengan zentratutako arreta integralaren eredu. Bizitza-proiekturako arreta- eta laguntza- plan pertsonalizatua versus plangintza klasiko pertsonalizatua. Lehenengoak hauxe proposatzen du:

- a) Pertsonaren balorazio integrala, bere bizitza-historia jasota.
- b) Eztabaida eta adostasuna pertsonarekin, familiarekin eta laguntza taldearekin.
- c) Arreta pertsonaren gaitasunetan jartzea.
- d) Aurreko guztiak.

102.- Psikologoaren Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusiko deontologia-kodea (2010eko martxoa). 9. artikulua. Psikologoak bezeroen irizpide moralak eta erlijiozkoak errespetatuko ditu...

- a) Baina horrek ez du eragotziko irizpide horiek zalantzan jartzea, esku-hartzean zehar beharrezkoa bada.
- b) Deontologia profesional orok duen pertsonenganako begirunearen irizpide komuna aintzat harturik.
- c) Sinesmenengatiko edo ideologiarengatiko bazterkeria eza aintzat harturik.
- d) Aurrekoetako bat ere ez.

103.- Giza-garunaren egiturari dagokionez, pertsona batek bekoki-lobuluan kalteak jasanez gero, zein funtzio-motari eragingo lioke, besteak beste, nabarmen?

- a) Ukimenaren bidezko informazioa prozesatzeari.
- b) Ikusmenaren bidezko informazioa prozesatzeari, koloreak eta mugimenduak.
- c) Plangintzari eta erabakiak hartzeari.
- d) Entzumenaren bidezko informazioa eta informazio soziala prozesatzeari, ikaskuntzari eta memoriari.

104.- Giza-garuneko zein neurotransmisore dago egoera depresibo eta maniakoekin lotuta?

- a) Noradrenalina.
- b) Dopamina.
- c) Azetilkolina.
- d) Serotonina.

105.- DSM-V. Buru-nahasmendu batek jarraian adierazten den sintomatologia izaten du maiz, gutxienez 6 hilabetez, testuinguru bitan edo gehiagotan (funtzionamendu sozial eta akademikoari eragiten diotelarik), eta sintoma batzuk pertsonak 12 urte bete aurretik agertzen dira. Sintomatologia: Eskuak edo oinak kolpatzen ditu, gehiegi hitz egiten du, besteren esaldiak amaitzen ditu, besteren elkarrizketetan sartzen da, altxatu behar ez denean altxatu egiten da, bere txanda itxarotea kostatzen zaio. Zein buru-nahasmenduri buruz ari gara?

- a) Garapen neurologikoaren nahasmendua. TDAH.
- b) Antsietate-nahasmendua
- c) Garapen neurologikoaren nahasmendua. Autismoaren espektroaren nahasmendua.
- d) Horietako bat ere ez.

106.- DSM-V. Nahasmendu psikotikoak definitzen dituzten funtsezko ezaugarrietakoak sintoma negatiboak dira. Hauexek dira eskizofrenian nabarmenenak:

- a) Abulia eta anhedonia.
- b) Adierazpen emotibo gutxitua eta abulia.
- c) Adierazpen emotibo gutxitua eta pentsamendu desantolatua.
- d) Soziabilitate eza eta abulia.

107.- DSM-V. Zerk bereizten du nahasmendu eskizofreniformea eskizofreniatik?

- a) Sintomatologia desberdinak.
- b) Iraupen desberdinak.
- c) Diagnostikoaren behin-behinekotasunak.
- d) Bilakaera eta garapenak.

108.- DSM-V. Nahasmendu bipolarren (I) dagokionez, baieztapen hauetatik zein da OKERRA?

- a) Faktore-genetikoak arrisku-faktore sendoak dira (arriskua 10 aldiz handiagoa da, batez beste, nahasmendua duten pazienteen familiako helduen artean).
- b) Gertatutako buru-hilketa kasu guztien laurden baten atzean nahasmendu bipolarra dago.
- c) Nahasmendu bipolarra duten pazienteen erdiak baino gehiagok alkohol kontsumoaren nahasmendua dute.
- d) Guztiak zuzenak dira.

109.- DSM-V. Gogo-aldartearen desarauketa disruptiboaren nahasmendua. Negatibotasun-nahasmendu desafiatazailearekiko diagnosi aldeak. Negatibotasun-nahasmendu desafiatazailearen sintomak (kolera atake larriak maiz) gogo-aldartearen desarauketa disruptiboaren nahasmendua duten haurrengan gertatzen badira ere, azken nahasmendu honen zein sintoma dira bitxiak negatibotasun-nahasmendu desafiatazailea duten haurrengan?

- a) Sintoma depresiboak.
- b) Sintoma afektiboak.
- c) Antsietate sintomak.
- d) Asaldu psikomotorren sintomak.

110.- DSM-V. Nahasmendu baten funtsezko ezaugarria da gertakizun edo jardueren aurretiazko beldurra eta antsietatea izatea, gertakizun horrek benetan izango duen eraginaren gehiegizko proportzioan. Zein da nahasmendu hori?

- a) Antsietate sozialaren nahasmendua (fobia soziala).
- b) Izu-nahasmendua.
- c) Antsietate-nahasmendu orokortua.
- b) Aldentze-antsietatearen nahasmendua.

- 111.- DSM.V. Buruko zein nahasmendu dago atxikimenduari lotuta?
- Autismoaren espektroko nahasmendua.
 - Gogo-aldartearen desaruketa disruptiboaren nahasmendua.
 - Trauma osteko estresaren nahasmendua.
 - Aldentzeagatiko antsietate-nahasmendua.
- 112.- DSM-V. Gorputz dismorfikoaren nahasmendua. Diagnosi-irizpideak. Erantzun OKERRA aukeratu:
- Beste pertonek ikusten ez dituzten edo besteentzat garrantzirik ez duten akats fisiko baten edo gehiagorengatiko kezka.
 - Klinikoki adierazgarria den ondoeza edo gizarte, lan eta funtzionamenduko beste arlo batzuetan narriadura.
 - Gehiegizko ezinegona pisuarengatik edo gorputzaren egiturarengatik.
 - Aurreko guztiak dira aipatutako nahasmenduaren diagnosi-irizpideak.
- 113.- DSM-V . Traumekin eta estres-faktoreekin lotuta dagoen nahasmendu bat gaixotasun medikuetan (fisikoetan) agertzen da maiz, eta nahasmendu-mediku fisiko baten erantzun psikologiko nagusia izan daiteke. Zein?
- Egokitze-nahasmendua.
 - Trauma osteko estresaren nahasmendua.
 - Estres-nahasmendu akutua.
 - Horietako bat ere ez.
- 114.- DSM-V. Betekadagatiko nahasmenduaren diagnosi-irizpideak. Erantzun OKERRA aukeratu:
- Betekada gertakariak izatea maiz (pertsona gehienek baino gehiago jatea denbora tarte zehatz batean eta gertakari horretan jan denaren kontrol-faltaren sentsazioa).
 - Ezinegon handia, betekadei dagokienez.
 - Betekadak gutxienez astean behin izaten dira, hiru hilabetetan zehar.
 - Konpentsaziozko jokabide desegokia maiz izatearekin lotzen da betekada.
- 115.- DSM-V. Joko patologikoaren ondorio funtzionalak: jolasean inplikatzegatik familia harremanak edo harreman sozialak galtzea edo arriskuan jartzea (gezurrak, zorrak...), lan- edo eskola- absentismoa, errendimendu txikia eta ...
- Jokabidearekin lotutako arazoak izatea.
 - Osasun orokorra nahiko kaltetua.
 - Gizarte-bazterkeria izateko arriskua.
 - Horietako bat ere ez.
- 116.- DSM-V. Aldizkako nahasmendu leherkorren diagnosi-irizpideak. Erantzun OKERRA aukeratu:
- Negatibotasun-nahasmendu desafiatazailan, kasketaldiak eta eztabaidak dira erasoaren ezaugarriak, eta aldizkako nahasmendu leherkorrean, eraso fisikoa ere sartzen da.
 - Mugako nortasun-nahasmendua duten norbanakoen agresibitate oldarkorren maila aldizkako nahasmendu leherkorra dutenena baino altuagoa da.
 - Jokabidearen nahasmenduaren aldean, aldizkako nahasmendu leherkorrak agresibitate oldarkorra izaten du, aurretiaz pentsatu gabea, eta helburu bat lortzeko xederik gabea.
 - Guztiak zuzenak dira.
- 117.- DSM-V. Nortasunaren nahasmenduak antzekotasun deskriptiboetan oinarritutako hiru talde handitan banatzen dira. Nortasunaren zein nahasmenduk eragiten du pertsonak arraro edo eszentriko agertzea?
- A taldeak: nortasunaren nahasmendu paranoidea, eskizoidea eta eskizotipikoa.
 - B taldeak: nortasunaren nahasmendu antisoziala, mugakoa, histrionikoa eta nartzisista.
 - C taldeak: nortasun nahasmendu ekiditzailea, mendekotasunezkoa eta obsesibo-kompulsiboa.
 - Horietako batek ere ez.
- 118.- DSM-V. Nortasunaren nahasmenduei dagokienez, baieztapen hauetatik zein da OKERRA?
- Haurtzaroan agertzen diren nortasunaren nahasmenduek ziur aski, aldaketarik gabe jarraituko dute helduaroan.
 - 18 urtetik beherako bati nortasunaren nahasmendua diagnostikatzeko, gutxienez urtebetez agertu behar dira nahasmenduaren ezaugarriak.
 - Nortasunaren nahasmendu antisoziala ezin zaie 18 urtetik beherakoei diagnostikatu; gainerakoak bai, salbuespenezko egoeratan.
 - Denak dira zuzenak.

119.- Gizarte-zerbitzuen kalitatearen kudeaketa. Gizarte-zerbitzuen erabiltzaileak anitzak dira eta horien iritzia kontuan hartu behar da zerbitzuen kalitatea baloratzeko orduan. Egiturari edo antolakuntzari buruzko zein aldagai erabil daitezke gizarte zerbitzuak erabiltzen dituzten herritarren asebetetze-balorazioak jasotzeko? Erantzun OKERRA aukeratu:

- a) Arreta jasotzeko itzarote denbora.
- b) Prestasuna
- c) Bete beharreko paperen zailtasun-maila.
- d) Arreta egin dioten pertsona desberdinen kopurua.

120.- Gizarte-zerbitzuen kalitatearen kudeaketa. Gizarte-zerbitzuen kalitate-kontzeptuaren dimentsioak. Erantzun OKERRA aukeratu:

- a) Prozesuaren ikuspegia.
- b) Pertsonen arteko alderdiak.
- c) Kalitate teknikoa.
- d) Guztiak zuzenak dira.